

Ohar autobiografikoak

Jaiotzen egunean, 1978ko maiatzaren 12an, etorkizuneko ez dakit zein unetan amaituko den atzera kontua hasi zen. Amak, berez, hezur eta mamizko kronometro akastun honez baino ez ninduen hornitu. Nire ohar autobiografiko hau osatu bitartean, konparazione, haren mutur bati begiratzeara beste erremediorik ez daukat, zerbait ulergarria idatziko badut (hain da akastun!), nire sortegunean abiatutako heriotza promesa edozein momentutan bete daitekeela gogora ekarriz eta gero –gaur behintzat– paperera.

* * *

1978ko maiatzaren 12an hasi nintzen nire autobiografiarako dokumentatzen.

* * *

1978eko maiatzaren 12an ezagutu nituen nire gurasoak. Haiak, edo beraien atal 23 kromosomadun banak nigan ezagutu zuten elkar bederlatzi bat hil lehenago, abuztuko egun edo gau batez, Burlatako festetan seguruenik, egiantzekotasunez bizipoz etiliko betean, zeinak, dagoeneko ezkondata zeudela aintzat hartuta, nerabe eta arduragabe puntu bat ematen baitio nire sorkundeari. Zesareaz atera (edo erauzi) ninduten amaren sabeletik. Horrek birjintasun klaseren bat ematen didalako ustean bizi izan naiz luzaro. Beste norbaiten 23 kromosoma nigan bilaketa burugabe bati ekin zioten aurreneko eguna ongi dut gogoan –urtarrilaren 6ko batean izan zen–, baina ez dut urtea esanen. Kalkulatu beharko nuke.

* * *


Ni jaiotzen Rafael Gurrea, Amadeo Marco, Ramón Rubial, Adolfo Suárez, Valéry Giscard d'Estaing, Jimmy Carter, Leonid Ilitx Brezhnev, Montini Aita Santua, Aita Villasante, Janelle Commissiong eta Mary Stävinen agintaldiaren pean. Hamaika kargu horietako hiru –hau idatzi bitartean; argitaratutakoan, behar-



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

bada lau– baino ez daude orain, 14.055 egun geroago –hau idatzi bitartean–, emakumezkoen esku.

* * *

1978eko maiatzaren 12an jaiotzen, nik dakidala, lehen aldiz. Harrezkerogero eta gauza gutxiago egin ditut, nik dakidala, lehen aldiz. Euskara ikastera, esaterako, 17 urterekin hasi nintzen bigarren aldiz. Gurasoek eraman (baina urtebetera atera) ninduten Uharteko hartzaindegi euskaldunaren kalifikazio orrialdean euskarazko hitz batzuk banezikizkiela jasota dago andereñoaren kaligrafia txukunean, nahiz eta –zehazten du txostenak– ez oso ahoskera garbian, baina hori bai euskaraz bai gaztelaniaz gertatzen omen zitzaidan. Dagoeneko ez ditut hitz bakan horiek gogoan. Bai gogoratzen naiz behin zigortu nindutela patioko zuhaitzean txiza egiteagatik, ez bainekien komunera joateko eskatzen, edo eskatzeak lotsa ematen zidalako bestela. Geroago, zehazten ez dakidan adin batean, baina atzera ere erdaldu petoa nintzenean, amak psikologo batengana eraman ninduen kezkatuta jendaurrean txintik esaten ez nuelako. Ez dut gogoan zer eginen zidaten edo nik zer esanen nuen kontsulta horretan, ez bainuen itzuli behar izan. Halere, beti irudipena dut desgogara mintzo naizela, edozein hizkuntzatan ari naizela ere.

* * *

Bere buruaz nekatutako mende baten amai aldera jaiotzen, bere historiaz nekatutako kontinente bateko lurralde nortasun arazodun batean, ahultzen hasitako genero biologiko baten ezaugarri morfologikoen baitan. Hortik aurrerako guztiak, ez mende berriak, ez neure burua euskaldun-edo sentiarazteak, ez gixon-erdia izatearekin etsitzeak, ez nau funtsean mende amaierako, nazionalitate arazotsuko eta gizadi erdia mende edukitzearen konplize izatetik libratu. Idazteak batzuetan bai. ■